ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko maiatzaren 13a, astelehena • 55 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA

Lanpostuen zerrenda aldatzea

Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legeak 16. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, 2019ko apirilaren 12ko ohiko bilkuran Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi zuen lanpostuen zerrendaren aldaketa partziala jakinarazten da, zeinak Kontu-hartzaile Nagusiaren postuari eragiten dion.

Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak eta Antolakuntzaren Kudeaketaren Zerbitzuak egindako txostenetako proposamena da lanpostuaren ehuneko 125eko dedikazioa mantentzea eta produktibitatearen tartean berariazko osagarria berri bat aplikatzea (4. Kodeko berariazko osagarria, hileko 1.087 euro, hau da hilero 480,63 euroko igoera). Horrenbestez, soldata berria 80.002 eurokoa izango da.

Behin aurrekontu-plantilla aldatuta eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 37.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, bilera egin da Udaleko langileen batzordearekin.

Tokiko Gobernu Batzarrak kontu-hartzaile postuan aldaketak egitea onetsi du. Postu horrek ezaugarri hauek zituen orain arte:

Kontu-hartzailetza eta Ikuskaritza Sailaren Kontu-hartzailetza eta Ikuskaritza Zerbitzuko Kontu-hartzailetza eta Ikuskaritza Atalari (131001.0001) atxikitako kontu-hartzaile postua (ID 1909). Hornitzeko sistema: gaikuntza nazionala. Taldea: A1. Eskala: gaikuntza nazionala. Azpieskala: kontu-hartzailetza eta diruzaintza. Kategoria: goi-mailakoa edo sarrerakoa (3211A). 4. hizkuntza-eskakizuna eta 1994eko abenduaren 31etako derrigortasun-data. Destino osagarria: 30. Berariazko osagarria: 5. Dedikazioa: ehuneko 125.

Ezaugarri hauek izatera igaroko da:

Kontu-hartzailetza eta Ikuskaritza Sailaren Kontu-hartzailetza eta Ikuskaritza Zerbitzuko Kontu-hartzailetza eta Ikuskaritza Atalari (131001.0001) atxikitako kontu-hartzaile postua (ID 1909). Hornitzeko sistema: gaikuntza nazionala. Taldea: A1. Eskala: gaikuntza nazionala. Azpieskala: kontu-hartzailetza eta diruzaintza. Kategoria: goi-mailakoa edo sarrerakoa (3211A). 4. hizkuntza-eskakizuna eta 1994eko abenduaren 31etako derrigortasun-data. Destino osagarria: 30. Berariazko osagarria: 4. Dedikazioa: ehuneko 125.

Hori guztia, 2019ko martxoaren 20ko eragin datarekin.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko apirilaren 25ean

Funtzio Publikoaren zinegotzi ordezkaria
JAIONE AGUIRRE LÓPEZ DE ARAYA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.05.13 05:32:04 Z